



Bilbao

Kultura arteko hiria
Ciudad intercultural
Intercultural city



Kontakizun laburren I. lehiaketa Zurrumurruen aurka, sartu aterpean! 2017ko oinarriak

Zurrumurruen aurkako kontakizun laburren lehenengo edizio honetan, istorio bat idaztera gonbidatzen zaitugu, zein-nahi, non-nahitik zatozela eta nora-nahi zoazela. Ibilbidearen zati bat partekatzen dugun ibiltariak gara, kontakizun bereziak topatzeko itxaropenarekin.

Idatzi bizikidetzaren dibertsitatean bultzatuko duen bestelako istorio bat, migratzaileei buruzko iritzi negatiboak aldatzeko lagungarria izango dena; besteari, desberdina denari, beharbada oraindik ezagutzeko aukera izan ez duzun horri buruzko begirada berria ekarriko duena.

Migratzaileen irudipen berriak sortzera animatzen zaitugu; ausartu topikoak antzematen modu sortzailean lantzeko berriro, iraultzeko, buelta emateko galtzerdiak balira bezala, zure irudimena izan dadila plaza berriari argia egingo dion sugarra. Jabetu dakizunaz eta azaldu zer egin dezakezun zeure kontakizunekin, narratiba berriak sor ditzakezulako imaginario pertsonalean eta kolektiboan.

Kontatu, kontatu dibertsitatea, ezberdintasunaren ekarpena, esperientziak eta bizikidetzaren partekatzearen aberastasuna. Idatzi eta eraldatu zeure hiria.

Bilbo, kulturarte hiria: atzerritarren aurkako aurreiritzirik, zurrumurrurik eta estereotiporik gabekoa.

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzaren, Bizikidetzaren eta Jaietako Sailak, [Herritarren eta Aniztasunaren II. Udal Planaren](#) barruan, Zurrumurruen aurkako kontakizun laburren I. lehiaketa antolatu du, oinarri hauen arabera:

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. LEHIAKETAREN HELBURUA

Zurrumurruen aurkako kontakizun laburren I. lehiaketa Bilboko Udalaren [Zurrumurruen aurkako Proiektuaren](#) barruko ekintza da. Zurrumurruen aurkako proiektua sentsibilizazioarako gizarte-estrategia bat da, Europa osoan garatzen dena. Atzerriko pertsonen aurkako estereotipo negatiboak eta zurrumurruen aurka egiten saiatzen da, guztion bizikidetzari modu negatiboan eragiten diotelako. Horren helburua da sare bat sortzea eta sendotzea, kultura-aniztasunarekin, gizartearen kohesioarekin eta diskriminazioaren aurkako borrokarekin konprometitutako pertsonen eta erakundearen artean.

Aurkezten diren kontakizunetan proiektuaren gaiei helduko die, proiektu horren zenbait eduki eta balio sartuta.



Bilbao

Kultura arteko hiria
Ciudad intercultural
Intercultural city



2. PARTE HARTZAILEAK

Nahi duten pertsona fisiko guztiek har dezakete parte, bere jatorria edo bizilekua zein-nahi izanda ere.

3. GAIA

Zurrumurruren aurkako edukiak eta balioak izango dira lehiaketaren gaiak: bizikidetzaz, kulturartekotasuna, dibertsitatea, arrazakeriaren aurkako borroka, estereotipoak, aurreiritziak, nortasuna, errespetua, elkarrizketa, dibertsitatearen abantailak eta bere ekarpenak eta abar.

4. EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

Hizkuntza modalitate bi daude: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Ez da onartuko obra bere bi hizkuntzetan.

5. KONTAKIZUNEN EZAUGARRIAK

Lanak gehienez 4 orriko luzera izango dute eta Arial 12 edo antzeko letra-motan, tarte bikoitzarekin eta alde batetik idatziak izango dira. Originalak, argitaratu gabeak eta lehenago beste lehiaketa batzuetan sarituak izan ez diren kontakizunak izango dira.

6. AURKEZTEKO ETA BIDALTZEKO ERA

Kontakizunen hiru ale aurkeztuko dira, gutunazal itxian, bertan ZURRUMURRUEN AURKA, SARTU ATERPEAN! KONTAKIZUN LABURREN I. LEHIAKETA, izenburua eta ezizena jarrita, sinadura barik.

Gutunazal horren barruan beste gutunazal itxi bat sartuko da, obraren izenburua eta ezizena adierazita. Gutunazal horren barruan honakoa hauek jasoko dira:

- Egilearen datuak: izena eta abizen bi
- NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.
- Helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa. Gutunazal horren kanpoko aldean kontakizunaren izenburua, ezizena eta aurkeztu den lehiaketaren izena agertuko dira.
- Kontakizuna argitaratu gabea eta beste lehiaketa batzuetan saritu gabea dela eta lehiaketaren oinarriak onartzen dituela adierazten duen zinpeko aitortpena. Saritutako eta argitaratzeko aukeratutako lanen gutunazalak bakarrik zabalduko dira.

7. LANAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Lanak norberak aurkeztu ditzake edo posta egiaztatuaren bidez bidali helbide honetara:



Bilbao

Kultura arteko hiria
Ciudad intercultural
Intercultural city



ZURRUMURRUEN AURKAKO KONTAKIZUN LABURREN I. LEHIAKETA
Berdintasun, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Saila
BILBOKO UDALA
Herritarrentzako Informazio Bulegoa
Ernesto Erkoreka plaza, 1, beheko solairua
48007- Bilbo

Barrutietako Udaltegien erregistro deszentralizatuetan ere aurkeztu daitezke.

Lanak aurkezteko epea 10 egunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunetik hasita.

Egun horren ostean heltzen diren lanen artean, bakarrik onartuko dira zigilu-markan jasota badago epe barruan bidali zirela. Lehen adierazitako udal bulegoen jendearentzako ordutegia astelehenetik barikura artekoa da: 08:30-13:00.

Lehiaketaren antolatzaileek ez dute euren gain hartuko lehiaketara bidaltzean obrak galtzearen, narriatzearen edo atzeratzearen ondoriozko erantzukizunik.

8. EPAIMAHAIA

Lehiaketaren antolatzaileek izendatutako epaimahaiak dagokion gutunazala zabaldua emango du ezagutzera epaia.

Epaimahaiak oinarri hauek interpretatu ahal izango ditu beharrezkoa bada, jarduteko arauak finkatu eta sariak emateko edota, behar denean, eman gabe uzteko ahalmen osoa izango du.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 53. artikuluan oinarrituta, eta, Bilboko Udalaren Andrazkoen eta Gizonezkoen Arteko Aukera Berdintasunerako IV. Planaren jarduera-printzipioekin bat etorruta, epaimahaiaren osaerak emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioari erantzungo dio.

9. EPAIA

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da eta epaimahaikideen gehiengo soilaren bidez hartua. Epaimahaiak du gerta daitezkeen gorabeherak erabakitzeko ahalmena. Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri guztiak onartzea. Epaimahaiaren epaia irabazleei jakinaraziko zaie urtea amaitu baino lehen.



Bilbao

Kultura arteko hiria
Ciudad intercultural
Intercultural city



10. MODALITATEAK ETA SARIAK

Euskarazko kontakizunak:

1. saria: 200 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 5 ale.
2. saria: 100 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 5 ale.

Gaztelaniazko kontakizunak:

1. saria: 200 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 5 ale.
2. saria: 100 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 5 ale.

Finalistak: Zurrumurruen aurka, sartu aterpean! Kontakizun laburren I. Lehiaketan finalista geratu diren obren sorta bat aukeratu eta argitaratuko da.

Saritu gabeko originalak hautsi egingo dira. Saririk jaso ez duten jatorrizko lanak ez zaizkie itzuliko egileei.

11. Sari-banaketako ekitaldia

Sariak irabazi dituzten pertsonak beren-beregi egingo den sari-banaketako ekitaldira joango dira. Sariak banatzeko egingo den ekitaldian, saritutako lanak irakurriko dira.

12. Argitaratzea

Saritutako lanak Bilboko Udalaren jabetzakoak izango dira eta bere gain hartuko du obra horiek erakusteko, kopiatzeko edo argitaratzeko eskubidea. Horrek ez du egile-eskubiderik sortzen, ezta eskatzeorik ere. Lanok Udalaren kultur ondarea gehitzeko direnez, ezingo dira ez saldu, ez erosi.

Saritutako eta aukeratutako kontakizunak "Zurrumurruen aurkako Kontakizunen I. Lehiaketa. Sartu aterpean!" izeneko liburuan argitaratuko dira.



Bilbao

Kultura arteko hiria
Ciudad intercultural
Intercultural city



13. Araudi Aplikagarria

Arau hauetan aurreikusita ez dagoen zerbait gertatuz gero, ordezeko izaeraz, Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Bilboko Udalbatzarrak 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen eta 2016ko uztailaren 20ko 138 zenbakiko BAO on argitaratu zuten ordenantza orokor hori.

Sin./Fdo.: Itziar Urtasun Jimeno

Berdintasun, Lankidetzeta, Bizidetzeta eta Jaietako Saileko

Zinegotzi Ordezkarria